

## 6. Bezeroarekiko harremanak

Bezeroek bi modu izango dituzte gure enpresarekin erlazioan egoteko:

Lehenengoa zerbitzu automatizatua izango da, online moduan, sortu dugun webgunearen bitartez: <https://herreroire.wixsite.com/my-site>

Bertan, hainbat ekintza egin ahalko dituzte. Hala nola, gure produktuari buruz informazioa irakurri, gure app-aren instalazioa nolako den ikasi, donazioak egin eta gurekin kontaktuan jarri. Guretzat, online zerbitzua da aukera hoberena, alde batetik, eroso samar delako eta, bestetik, azkarrago lan egin dezakegu.

Bestetik, zerbitzu pertsonalizatua; hau da, aurrez aurreko zerbitzua, egongo da bezeroentzat gure lokalera joaten baldin badira: **Juan Bautista Gamiz Zezen plaza 10, Vitoria Gasteiz**. Lokalera joanez gero, gure bezeroen zalantzak argitu ahalko ditugu eta gure produktua erosi ahalko dute. Zerbitzu pertsonalizatuak hainbat abantailak dauzka, esate baterako, sortzen duen gertutasuna eta zuk zeuk pertsonifikatzearen askatasuna.